JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

SUPLEMENTO
al Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava

GEHIGARRIA
Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala

2013ko martxoaren 1a, ostirala ZENBAKIA 26 NÚMERO Viernes, 1 de marzo de 2013

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

1024

**6/2013 Foru Araua, otsailaren 18koa, informazioa baliabide informatikoen bitartez trukatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioaren eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien arteko, eta Foru Aldundien beraien arteko lankidetza hitzarmena berrestekoa.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2013ko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi dute:

6/2013 Foru Araua, otsailaren 18koa, informazioa baliabide informatikoen bitartez trukatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioaren eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien arteko, eta Foru Aldundien beraien arteko lankidetza hitzarmena berrestekoa

Administrazio izapidetzea modernizatu, arrazionalizatu eta errazteko, zerbitzu publiko eraginkorrak eta kalitatezkoak eskaintzeko helburuarekin, ezinbestekoa da herri administrazioen arteko lankidetza sendotzea eta, zehazki, horien artean informazioa trukatzeko sistemak eratzea, herritarrei datuen egiaztagiririk eskatu behar ez izateko administrazioetan izapideak egiteko orduan.

Ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, onartu egin du herritarrek ez dutela herri administrazioak dagoeneko bere esku duen datu eta agiririk aurkeztu beharrik, eta hori errazte aldera 9. artikuluan ezarri du administrazioa gainerako herri administrazioekin hitzarmenak egiten saiatuko dela; azken alderdi hori EAEko Herri Administrazioaren baitako Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan ere jasota dago. Halako hitzarmenetan, datuak edo agiriak laga dituen organoak moduren bat izan behar du eskubidea behar bezala egikaritzen den ikusteko, eta hitzarmenean egiaztatze prozedura horiek ere jaso beharko dira.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

1024

**Norma Foral 6/2013, de 18 de febrero, de ratificación del convenio de colaboración entre la administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, y de éstas entre sí, para el intercambio de información por medios electrónicos.**

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 18 de febrero de 2013, han aprobado la siguiente Norma Foral:

Norma Foral 6/2013, de 18 de febrero, de ratificación del convenio de colaboración entre la administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, y de éstas entre sí, para el intercambio de información por medios electrónicos

La modernización, racionalización y simplificación en la tramitación administrativa, con la finalidad de ofrecer unos servicios públicos eficientes y de calidad, hace indispensable intensificar la cooperación entre las Administraciones Públicas y, en concreto, construir sistemas de intercambio de información entre éstas que eviten la necesidad de solicitar a la ciudadanía certificaciones de datos para realizar trámites ante las Administraciones.

La Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos ha reconocido el derecho de la ciudadanía a no aportar los datos y documentos que obren en poder de las Administraciones Públicas, y para facilitarlo establece en su artículo 9 que éstas promoverán la celebración de convenios con las restantes Administraciones Públicas, aspecto también recogido en el Decreto 21/2012, de 21 de febrero, de Administración Electrónica en la Administración Pública de la CAE. En estos convenios se establecerán los procedimientos que permitan a los órganos cedentes comprobar el ejercicio del derecho respecto de los datos o documentos cuyo acceso hubiera sido solicitado.

Hori dela eta, hitzarmenkideek zenbait datu trukatu behar dituzte bere gain dituzten funtzioak egin eta eskumenak baliatzeko; beraz, herri administrazioen arteko harremanetan gailendu behar den lankidetzari helduta, eta beren jardunean, eraginkortasuna eta herritarrentzako zerbitzua irizpide dituztela-eta beharrezko jotzen dute truke horren baldintzak arautzea; izan ere, tresna informatiko edo telematikoak erabiliz egin ahal izango da, herri administrazioen esku dauden datu pertsonalen arloan herritarrek dituzten berme eta eskubideak gordeta.

EAEko Herri Administrazioak eta Lehendakaritzaren Ministerioak 2010eko urriaren 18an hitzarmena sinatu zuten administrazio elektronikoko zerbitzuak elkarri emateko, eta horren II. eranskinean azaltzen da EAEko Herri Administrazioak konpromisoa hartu duela foru administrazioek, beraiek erabakitako teknologiaren, mekanismoen eta prozeduren bidez, SARA sarera sarbidea izatea ahalbidetzeko eta sustatzeko. Lehendakaritzaren Ministerioak eta autonomia erkidegoek garatu duten azpiegitura teknologikoen multzoa da sare hori, eta aukera ematen du administrazio guztiak konektatzeko eta aplikazioak trukatzeko balio izango duen sistema prestatzeko.

Beste administrazioekin batera jardun ahal izateko erabiliko den sistemak ahalbidetzen du paperezko egiaztagiriak ordeztea datu eskualdaketa telematikoekin, eta bermatzen ditu trukatutako informazioaren benekotasun, osotasun, isilpekotasun, eskuragarritasun eta zaintza baldintzak. Bada, sistema hori jada erabilgarri dago, alderdiek 2009ko abenduaren 1ean sinatu zuten truke hitzarmenaz geroztik, baina orduan zerga arlora zegoen mugatuta. Hori dela eta, gainerako eskumen arloetara hedatu behar da orain, hiru foru aldundiek beraien artean eta horiek Estatuko Administrazio Orokorrarekin informazioa trukatzeko aukera egongo dadin.

Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak, informazioa baliabide informatikoen bitartez trukatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundien arteko, eta foru aldundien beraien arteko lankidetza hitzarmena izenpetzea onartu du, Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari buruzko 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauaren 6.2. b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

ARTIKULU BAKARRA

Lehenengoa.- Informazioa baliabide informatikoen bitartez trukatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundien arteko, eta foru aldundien beraien arteko lankidetza hitzarmena berrestea, Diputatuen Kontseiluak erabaki bezala.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 18a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**1019**

**15/2013 Mozioa, otsailaren 18koa, epe luzean arabar Toki Entitateetan euskara teknikariek egiten duten lana bermatzekoa.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2013ko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

15/2013 Mozioa, otsailaren 18koa, epe luzean arabar Toki Entitateetan euskara teknikariek egiten duten lana bermatzekoa.

1. Arabako Biltzar Nagusiek euskararen erabileraren normalizazioan Arabako Toki Erakundeek egiten duten ezinbesteko lana azpimarratu eta lan hori garatzen jarrai dezaten beharrezkoak dituzten bitartekoak eta finantzaketa epe luzera bermatzea exijitzen diote Arabako Foru Aldundiari.

2. Arabako Biltzar Nagusiek euskararen erabileraren normalizazioaren bidean Arabako Toki Erakundeetan lan egiten duten euskara teknikarien lana funtsezkoa dela azpimarratu nahi dute, eta postu horiek mantendu eta indartu behar direla adierazten dute. Horregatik,

Por ello, las partes firmantes del convenio requieren la cesión de determinados datos para el desarrollo de las funciones y el ejercicio de las competencias que tienen encomendadas, por lo que en el marco de la colaboración mutua que debe presidir las relaciones entre Administraciones Públicas y en aplicación de los principios de eficiencia y servicio a la ciudadanía que han de regir su actuación, consideran necesario regular las condiciones de dicho intercambio, que se producirá utilizando medios informáticos o telemáticos, y con salvaguarda de las garantías y los derechos que asisten a la ciudadanía, en relación a sus datos personales en poder de las Administraciones Públicas.

La Administración de la CAE y el Ministerio de la Presidencia suscribieron, el 18 de octubre de 2010, un convenio para la prestación mutua de servicios de Administración Electrónica, que en su Anexo II señala que la Administración de la CAE se compromete a facilitar y promover el acceso de las Diputaciones Forales a la Red SARA, con la tecnología, mecanismos y procedimientos que éstas acuerden. Esta Red es un conjunto de infraestructuras tecnológicas desarrollado por el Ministerio de la Presidencia y las Comunidades Autónomas que permite conectar a todas las Administraciones que lo deseen y facilitar un sistema de intercambio de aplicaciones.

El sistema de interoperabilidad que se va a utilizar para sustituir los certificados u otros documentos acreditativos en papel por transmisiones de datos telemáticas, y asegura las condiciones de autenticidad, integridad, confidencialidad, disponibilidad y conservación de la información intercambiada, ya está operativo a partir del convenio de intercambio firmado entre las partes el 1 de diciembre de 2009, pero limitado entonces al ámbito tributario. Se precisa ahora abrirlo al resto de ámbitos competenciales, posibilitando también el intercambio entre las tres Diputaciones Forales y de éstas con la Administración General del Estado.

El Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Álava, ha acordado la suscripción de un Convenio de colaboración entre la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, y de éstas entre sí, para el intercambio de información por medios electrónicos, de conformidad con lo previsto en el 6.2 b) de la Norma Foral, de 7 de marzo de 1983, de Organización Institucional del Territorio Histórico de Álava.

ARTÍCULO ÚNICO

Primero.- Se ratifica el Convenio de Colaboración entre la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, y de éstas entre sí, para el intercambio de información por medios electrónicos en los términos acordados por el Consejo de Diputados.

Vitoria-Gasteiz, 18 de febrero de 2013.– El presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**1019**

**Moción 15/2013, de 18 de febrero, por la que se pretende garantizar, a largo plazo, el trabajo de los Técnicos de Euskera de las entidades locales alavesas.**

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 18 de febrero de 2013, aprobaron la siguiente moción:

Moción 15/2013, de 18 de febrero, por la que se pretende garantizar, a largo plazo, el trabajo de los Técnicos de Euskera de las entidades locales alavesas.

1. Las Juntas Generales de Álava destacan el imprescindible trabajo que realizan las Entidades Locales alavesas para la normalización del uso del euskera y exigen a la Diputación Foral de Álava que garantice a largo plazo los medios y financiación suficientes para que continúen realizando dicha labor.

2. Las Juntas Generales de Álava destacan que para la normalización del uso del euskera es fundamental la labor que realizan los Técnicos de Euskera que trabajan en las Entidades Locales alavesas y manifiestan que dichos puestos se deben mantener y reforzar. Por lo tanto,

finantzaketa gutxienez orain artekoa izatea exijitzen diote Arabako Foru Aldundiari eta baita orain arteko eredua mantendu dezala ere. Hau da, teknikariak Kuadrillek kontratatu ditzatela eta Kuadrilletarako zuzenean lan egitea. Horrekin batera, Arabako Kuadrilletako eta Trebiñuko udaleko euskara teknikarien lanpostuak urtero kolokan egon ez daitezen, postu hauen izaera eta beharrezkoa den finantzaketa egonkortasunez bermatua izan dadin, beharrezkoak diren Foru Arau aldaketak egiteko konpromisoa hartzen dute.

3. Arabako Biltzar Nagusiek zera eskatzen diote Arabako Foru Aldundiari: Toki Erakundeen euskara programak edota euskara teknikariekin zerikusia duen edozein erabaki hartu aurretik, Kuadrilla zein udalekin elkarlanean eztabaidatu, adostu eta garatu ditzala.

4. Arabako Biltzar Nagusiek euskararen normalizazioan aurrera urratsak emateko finantzaketa handiagoa eta bitarteko gehiago behar direla adierazten dute, eta bide horretan instituzio guztien ekarpena handiagoa izan behar dela ulertuz, Arabako Foru Aldundiari laguntza, finantzaketa eta bitarteko horiek eskaintzeko prestutasuna agertu dezala eskatzen diote.

5. Mozio hau Arabako Kuadrilla eta udal guztietara igorriko da.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 18a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

exigen a la Diputación Foral Álava que al menos mantenga la financiación que tenían hasta la fecha y que continúe con el modelo actual. Es decir, que los Técnicos sean contratados por las Cuadrillas y que trabajen directamente para ellas. Además, se compromete a realizar las modificaciones normativas necesarias para que se garantice la estabilidad de la naturaleza de estos puestos y su necesaria financiación para que, de este modo, cada año no peligren los puestos de los Técnicos de Euskera de las Cuadrillas alavesas y del Ayuntamiento de Treviño.

3. Las Juntas Generales de Álava solicitan a la Diputación Foral de Álava que antes de tomar cualquier decisión sobre los programas de euskera de las Entidades Locales y/o cualquier otra que tenga que ver con los Técnicos de Euskera, las debata, acuerde y desarrolle en colaboración con las Cuadrillas y ayuntamientos.

4. Las Juntas Generales de Álava manifiestan que se precisa mayor financiación y más medios para poder dar pasos a favor de la normalización del euskera, y entendiendo que para ello debe ser mayor la aportación de todas las instituciones, solicitan a la Diputación Foral de Álava que se muestre dispuesta a ofrecer ayuda, financiación y medios.

5. Esta moción se remitirá a todas las Cuadrillas y ayuntamientos alaveses.

Vitoria-Gasteiz, 18 de febrero de 2013.– El presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**1021**

**13/2013 Mozioa, otsailaren 18koa, kultura eta arte munduari laguntzekoa eta Arabako Lurralde Historikoko kultura garatzeko Plan Estrategiko bat burutzekoa.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2013ko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

13/2013 Mozioa, otsailaren 18koa, kultura eta arte munduari laguntzekoa eta Arabako Lurralde Historikoko kultura garatzeko Plan Estrategiko bat burutzekoa

1. Arabako Biltzar Nagusiek berriz eskatzen diote Arabako Foru Aldundiari Artium Museoaren inguruan Biltzar Nagusiek onetsi zuten 76/2012 mozioa, abenduaren 14koa, bete dezala.

2. Arabako Biltzar Nagusiek Arabako Lurralde Historikoko kultura eta arte munduarekiko laguntza eta elkartasuna adierazi eta errepikatzen dute horien lana eta ekonomia eta gizarte arloan egiten duten ekarpena gutxiesten duten politika ekonomikoen aurrean.

3. Arabako Biltzar Nagusiek Euskara, Kultura eta Kirol batzordean ponentzia bat osatzea erabaki dute, Lurralde Historikoaren kultura garatzeko Plan Estrategiakoa egin eta aurkezteko. Plan horrek, definitu egingo du Arabako Foru Aldundiak zer kultura politika burutu behar dituen ganberak dituen eskumenen arabera, kultura instalazioen gaitasunak aztertuko dira eta elkarte, arte eta kultura ehunak egiten dituen ekarpenak jasoko ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 18a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**1021**

**Moción 13/2013, de 18 de febrero, de apoyo al mundo cultural y artístico y de creación de una ponencia con el fin de elaborar un Plan Estratégico para el desarrollo cultural del Territorio Histórico de Álava.**

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 18 de febrero de 2013, aprobaron la siguiente moción:

Moción 13/2013, de 18 de febrero, de apoyo al mundo cultural y artístico y de creación de una ponencia con el fin de elaborar un Plan Estratégico para el desarrollo cultural del Territorio Histórico de Álava

1. Las Juntas Generales de Álava instan nuevamente a la Diputación Foral de Álava a que cumpla la Moción 76/2012, de 14 de diciembre, en relación con la situación del Museo Artium, acordada por estas Juntas Generales.

2. Las Juntas Generales de Álava manifiestan y reiteran su apoyo y solidaridad al mundo cultural y artístico del Territorio Histórico de Álava ante la ejecución de políticas económicas que menosprecian e ignoran su trabajo y su contribución económica y social.

3. Las Juntas Generales de Álava acuerdan constituir una Ponencia en la Comisión de Euskera, Cultura y Deporte para la elaboración y presentación de un Plan Estratégico para el desarrollo cultural del Territorio Histórico, que determine las políticas culturales de la Diputación Foral de Álava en función de sus competencias, el análisis de las potencialidades de las instalaciones culturales, así como la inclusión de las aportaciones del tejido asociativo, artístico y cultural de Álava.

Vitoria-Gasteiz, 18 de febrero de 2013.– El presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**1023**

**14/2013 Mozioa, otsailaren 18koa, banku entitateen jabetzakoak diren etxebizitza hutsen Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzkoa.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2013ko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

14/2013 Mozioa, otsailaren 18koa, banku entitateen jabetzakoak diren etxebizitza hutsen Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzkoa.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**1023**

**Moción 14/2013, de 18 de febrero, en relación con el Impuesto de Bienes Inmuebles de viviendas vacías propiedad de las entidades bancarias.**

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 18 de febrero de 2013, aprobaron la siguiente moción:

Moción 14/2013, de 18 de febrero, en relación con el Impuesto de Bienes Inmuebles de viviendas vacías propiedad de las entidades bancarias.

Arabako Biltzar Nagusiek eskumena duen administrazioari eskatzen diote zenbait gainordain ezar ditzan Ondasun Higiezinen gaiko Zergan (OHZ) banku entitateenak diren etxebizitza hutsen kasuan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 18a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**1091**

**Biltzar Nagusien Aretoan, Foru Aldundiaren Etxe Jauregian, 2013ko martxoaren 4an, astelehena, goizeko 09:00etan, egingo den Osoko Bilkuraren gai-zerrenda.**

1.) Gorka Ortiz de Guinea Vea Murguia jaunak, Bildu Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako interpelazioa Arabako diputatu nagusiari zuzendua, jakiteko nola baloratzen duen apartako ordainak ordaindu ez izanak Arabako Foru Ogasunaren bilketan izan duen eragina. (Espedientea: 9 /C/02/0001823)

Bigarren eta hirugarren gai metatuak

2.) Ramiro González Vicente jaunak, EAJ-PNV Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako interpelazioa Arabako diputatu nagusiari zuzendua, Forum Europa-Tribuna Euskadi forumean diputatu moduan parte hartu zuenean nazionalismoaren inguruan egindako adierazpenak berretsiko dituen edo zuzenduko dituen jakiteko. Aipatutako foruma 2013ko otsailaren 13an egin zen (Espedientea: 9 /C/02/0001831)

3.) Lorena López de Lacalle Arizti andreak, Bildu Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako interpelazioa Arabako diputatu nagusiari zuzendua, euskal nazionalismoari buruz Forum Europa-Tribuna Euskadi forumean, 2013ko otsailaren 13an egindakoan, egin zituen adierazpenei buruzkoa. (Espedientea: 9 /C/02/0001832)

4.) Eva María Jiménez Alcudia andreak, Euskal Sozialistak Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera Nekazaritza Saileko foru diputatuari zuzendua, Noryesteko baltsan zer azalera gelditu den urpean jakiteko. (Espedientea: 9 /C/03/0001755)

5.) Jesús María López Ubierna jaunak, Euskal Sozialistak Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuari zuzendua, 2013ko otsailaren 12ko elurtean arabar errepide sarean gertatutako jazoerei buruzkoa. (Espedientea: 9 /C/03/0001828)

6.) Julia María Liberal Liberal andreak, Euskal Sozialistak Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari zuzendua, zergak zatikatzeko enpresa orok egin behar duen jarduera protokoloari eta ordainketa zatikatua emateko edo ez aplikatzen diren irizpideei buruzkoa. (Espedientea: 9 /C/03/0001834)

7.) Nerea Gálvez Lavín andreak, Ezker Batua-Berdeak Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari zuzendua, jakiteko Sailak zer zerga tratamendu duen Arabako Lurralde Historikoko futbol eta saskibaloiko talde profesionalekiko. (Espedientea: 9 /C/03/0001851)

8.) Patxi Martínez de Albéniz Casi jaunak, Bildu Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera diputatu nagusiari zuzendua, elektrizitate-horniduraren mozketen ondorioz Aldundiaren lokal eta bulegoetan sortu ziren kalteei buruzkoa. Mozketa horiek otsailaren 12an Araban izandako elurtearen ondorioz gertatu ziren. (Espedientea: 9 /C/03/0001852)

9.) Julia Liberal Liberal andreak, Euskal Sozialistak Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari zuzendua, Arabako Foru Aldundiaren kudeaketan eragina duten neurrietan Langile Autonomoaren Estatua aplikatzeko mailari buruzkoa. (Espedientea: 9 /C/03/0001853)

10.) Rafael Cruz Sáenz Castro jaunak, Euskal Sozialistak Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuari zuzendua, Arabako Lurralde Historikoan desagertzeko arriskua duten faunako espeziei buruzkoa. (Espedientea: 9 /C/03/0001854)

Las Juntas Generales de Álava proponen a la Administración competente a establecer recargos en el Impuesto de Bienes Inmuebles (IBI) para las viviendas vacías propiedad de las entidades bancarias.

Vitoria-Gasteiz, 18 de febrero de 2013.– El presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**1091**

**Orden del día de la Sesión Plenaria que se celebrará el lunes día 4 de marzo de 2013, a las 09:00, en el Salón de Juntas Generales de la Casa Palacio de la Diputación Foral.**

1º) Interpelación formulada por D. Gorka Ortiz de Guinea Vea Murguia, Procurador del Grupo Juntero Bildu, dirigida al Diputado General de Álava, interesando conocer su valoración sobre el efecto que el impago de la paga extra ha tenido sobre la recaudación de la Hacienda foral alavesa. (Expediente: 9 /C/02/0001823)

Asuntos segundo y tercero acumulados

2º) Interpelación formulada por D. Ramiro González Vicente, Procurador del Grupo Juntero EAJ-PNV, dirigida al Diputado General de Álava, interesando saber si se va a ratificar o, por el contrario, tiene intención de rectificar, las declaraciones sobre el nacionalismo que efectuó mientras participaba, como Diputado, en el Forum Europa-Tribuna Euskadi, el pasado 13 de febrero de 2013. Expediente: 9 /C/02/0001831)

3º) Interpelación formulada por Dña. Lorena López de Lacalle Arizti, Procuradora del Grupo Juntero Bildu, dirigida al Diputado General de Álava, sobre sus declaraciones, el día 13 de febrero de 2013, en el Forum Europa-Tribuna Euskadi, respecto al nacionalismo vasco. (Expediente: 9 /C/02/0001832))

4º) Pregunta formulada por Dña. Eva María Jiménez Alcudia, Procuradora del Grupo Juntero Socialistas Vascos, dirigida al Diputado Foral de Agricultura, interesando conocer cuál es la superficie de la balsa de Noryeste que se ha podido inundar. (Expediente: 9 /C/03/0001755)

5º) Pregunta formulada por D. Jesús María López Ubierna, Procurador del Grupo Juntero Socialistas Vascos, dirigida a la Diputada Foral de Obras Públicas y Transportes, sobre las incidencias en la red viaria alavesa durante la nevada del día 12 de febrero de 2013. (Expediente: 9 /C/03/0001828)

6º) Pregunta formulada por Dña. Julia María Liberal Liberal, Procuradora del Grupo Juntero Socialistas Vascos, dirigida al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, sobre el protocolo de actuación que debe realizar cualquier empresa para fraccionar los impuestos, y los criterios que se aplican para conceder o no el pago fraccionado. (Expediente: 9 /C/03/0001834)

7º) Pregunta formulada por Dña. Nerea Gálvez Lavín, Procuradora del Grupo Juntero Ezker Batua-Berdeak, dirigida al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, sobre el tratamiento fiscal que aplica su departamento a los equipos profesionales de fútbol y baloncesto del Territorio Histórico de Álava. (Expediente: 9 /C/03/0001851)

8º) Pregunta formulada por D. Patxi Martínez de Albéniz Casi, Procurador del Grupo Juntero Bildu, dirigida al Diputado General, sobre los daños producidos en los locales y oficinas de titularidad foral por los cortes en el suministro eléctrico que se produjeron como consecuencia de la nevada que afectó a Álava el día 12 de febrero. (Expediente: 9 /C/03/0001852)

9º) Pregunta formulada por Dña. Julia María Liberal Liberal, Procuradora del Grupo Juntero Socialistas Vascos, dirigida al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, sobre el grado de aplicación del Estatuto del Trabajador Autónomo en las medidas que afectan a la gestión de la Diputación Foral de Álava. (Expediente: 9 /C/03/0001853)

10º) Pregunta formulada por D. Rafael Cruz Sáenz Castro, Procurador del Grupo Juntero Socialistas Vascos, dirigida a la Diputada Foral de Medio Ambiente y Urbanismo, sobre las especies de fauna en peligro de extinción en el Territorio Histórico de Álava. (Expediente: 9 /C/03/0001854)

11.) Dalmacio Martín Felipe jaunak, Euskal Sozialistak Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuari zuzendua, Arabar Errioxako ur hornidura egiten duten akuiferoei buruzkoa. (Espedientea: 9 /C/03/0001855)

12.) María Cristina González Calvar andreak, Euskal Sozialistak Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera, Arabako diputatu nagusiari zuzendua, Estatuko Zerga Agentziarekiko koordinazioari buruzkoa. (Espedientea: 9 /C/03/0001856)

13.) David Romero Campos jaunak, Sozialistak Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera Toki Administrazioaren Saileko foru diputatuari zuzendua, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bi arauketa aldi berean izateari buruzkoa. (Espedientea: 9 /C/03/0001857)

14.) Ramiro González Vicente jaunak, EAJ-PNV Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera Toki Administrazioaren Saileko foru diputatuari zuzendua, jakiteko Obra eta Zerbitzuen Foru Planarekin ordaindutako diru-laguntzak nora joan ziren, 2011ko abenduaren 30eko Diputatuen Kontseiluaren akordioen bidez ezeztatutakoak alegia. (Espedientea: 9 /C/03/0001859)

Hamabosgarren eta hamaseigarren gai metatuak

15.) Ramiro González Vicente jaunak, EAJ-PNV Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera Arabako diputatu nagusiari zuzendua, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren Lege Proiektuari buruzkoa. (Espedientea: 9 /C/03/0001860)

16.) Gorka Ortiz de Guinea Vea Murguia jaunak, Bildu Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera Arabako diputatu nagusiari zuzendua, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren Lege Proiektuaren aplikazioari buruzkoa. (Espedientea: 9 /C/03/0001863)

17.) Pedro Ignacio Elosegui González de Gamarra jaunak, EAJ-PNV Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari zuzendua, Iruña-Veleia aztarnategiaren bisiten programa zein egoeratan dagoen jakiteko. (Espedientea: 9 /C/03/0001861)

18.) Ramiro González Vicente jaunak, EAJ-PNV Biltzarkide Taldeko Prokuradoreak, aurkeztutako galdera Nekazaritza Saileko foru diputatuari zuzendua, jakiteko zer urrats eman diren nekazarien, abeltzainen eta kontsumitzaileen arteko merkataritza harremana errazteko leihatila bakarra abian jartzeko. (Espedientea: 9 /C/03/0001862)

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 26a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

11º) Pregunta formulada por D. Dalmacio Martín Felipe, Procurador del Grupo Juntero Socialistas Vascos, dirigida a la Diputada Foral de Medio Ambiente y Urbanismo, sobre los acuíferos que suministran el abastecimiento de agua a la Rioja Alavesa. (Expediente: 9 /C/03/0001855)

12º) Pregunta formulada por Dña. María Cristina González Calvar, Procuradora del Grupo Juntero Socialistas Vascos, dirigida al Diputado General de Álava, sobre la coordinación con la Agencia Tributaria Estatal. (Expediente: 9 /C/03/0001856)

13º) Pregunta formulada por D. David Romero Campos, Procurador del Grupo Juntero Socialistas Vascos, dirigida al Diputado Foral de Administración Local, sobre la coexistencia temporal de dos regulaciones del Plan Foral de Obras y Servicios. (Expediente: 9 /C/03/0001857)

14º) Pregunta formulada por D. Ramiro González Vicente, Procurador del Grupo Juntero EAJ-PNV, dirigida al Diputado Foral de Administración Local, sobre el destino de las subvenciones abonadas con cargo al Plan Foral de Obras y Servicios, que fueron revocadas por acuerdos adoptados por el Consejo de Diputados de 30 de diciembre de 2011. (Expediente: 9 /C/03/0001859)

Asuntos decimoquinto y decimosexto acumulados

15º) Pregunta formulada por D. Ramiro González Vicente, Procurador del Grupo Juntero EAJ-PNV, dirigida al Diputado General de Álava, respecto al Anteproyecto de Ley de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local. (Expediente: 9 /C/03/0001860)

16º) Pregunta formulada por D. Gorka Ortiz de Guinea Vea Murguia, Procurador del Grupo Juntero Bildu, dirigida al Diputado General, sobre la aplicación de la Ley de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local. (Expediente: 9 /C/03/0001863)

17º) Pregunta formulada por D. Pedro Ignacio Elosegui González de Gamarra, Procurador del Grupo Juntero EAJ-PNV, dirigida a la Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte, sobre la situación en que se encuentra el programa de visitas del yacimiento de Iruña-Veleia. (Expediente: 9 /C/03/0001861)

18º) Pregunta formulada por D. Ramiro González Vicente, Procurador del Grupo Juntero EAJ-PNV, dirigida al Diputado Foral de Agricultura, sobre los pasos dados para poner en marcha una ventanilla única que facilite la relación comercial entre agricultores, ganaderos y consumidores. (Expediente: 9 /C/03/0001862)

Vitoria-Gasteiz, a 26 de febrero de 2013.– El presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.